UDALSAREAREN 2023KO LEHEN BATZORDE TEKNIKOA BURUTU DA

Posted on 28/03/2023 by Naider

Category: Albistea
Tags: Agenda 2030, Ecociudades, Transición ecológica

Gaur, Udalsarearen 62. batzorde teknikoa egin da Donostiako Udalean, eta bertan izan dira EAEko udalerrietako ordezkariak.

Batzordeak informazioa eman du sarearen kudeaketa-planari buruz, eta azken seihilekoko jarduera eta datozen hiru hilabeteetan bultzatu beharreko lan-ildoak jaso ditu. Donostiak ekonomia zirkularraren arloan duen esperientzia aurkeztu du turismoaren iraunkortasunean sakontzeko, bestalde 24 erakunderekin abian den "Enplegu gaztea klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan toki-administrazioan" programa zehaztu da, eta Tokiko 2030 Agendaren laguntza-zerbitzuak, tokiko garapen jasangarrirako laguntzen ordena (2023ko deialdia) eta Eskolako 2030 Agendaren tokiko dimentsioaren gidaren aurkezpena partekatu dira.